

1. Balorezko proposamena



- Bakarra izango da gure lurraldean. Urrutiko lurraldeetan honelako makinak existitzen direla badakigu, Alemanian esaterako, eta ideia ezin hobea iruditu zitzaigunez, gure lurraldera, hau da, EAera ekartzea erabaki genuen. Oraingoz horrelako makinarik hemen ez dagoenez, bakarra eta berritzailea da. Lehiarik gabeko merkatu batean sartuko garenez, arrakasta izango dugulakoan gaude.
- Gure zerbitzua sozialki onuragarria dela tinko pentsatzen dugu, azken batean, plastikozko botilak edo latak jasotzen ditugunez, birziklapenari bultzada emango diogu, ingurumena zaintzeko pausu garrantzitsu bat emanez. Onura sozial hau ematearen ondorioz, jendearen eta instituzio publikoen onarpena lortuko dugula uste dugu, berriz ere gure zerbitzua arrakastara eramanez.
- Zerbitzu eskuragarri eta erraza izango da, bezeroen erosotasuna kontuan hartzen baitugu. Gure makinak bezeroek egunerokotasunean bisitatzen dituzten lekuetan egongo dira, beraz, ez dute saiakera berezirik egin behar gure zerbitzua erabiltzeko, eta plastikozko poltsak eta botilak makinetako zuloetan sartzea erraza eta eroso izango da bezeroentzat.